

05 LANKIDETZA MODUAK

Izaera publiko-sozialeko proiektuetan kolaboratzeko moduen azterketak arlo publikoen bermeak ziurtatzeko prozedurari mugatzeak dakarren tentsioari aurre egitea inplikatzan du, eta beste zenbait aukera eta ekimenei bidea emateko harreman mota ezberdinetan esperimentatzea ere bai.

Tentsio hori, ebatzi behar izatetik urrun, proposamen berrietarako esparru ireki bat gerta liteke. Kolaboratzeko moduak, alditan, une gatazkatsu, burokratiko eta zurrin bat izaten dira baina bestalde, aukera, ikaskuntza eta, azken finean, posibleak liratekeen esparruen zabalkunderako aukera bihur daitezke.

Praktika bat, politika bat, egiteko modu bat birpentsatzea, aldaketa baten sorrerari bidea emateko aukeraren baliokidea da. Ezinbestekoa da kultura administratiboan eta juridiko-teknikoan aurrera egitekotan eraldaketak egitea.

ESPERIMENTAZIOA BIDERATZEA

Erakunde publikoak hala nola herritarren errealitatea, etengabeko eboluzioan txertatuta daude. Ez da harriztekoa eboluzio honetan zenbait pertsonentzat aldaketak azkarregiak edota motelegiak gertatzea eta tentsioak sortzea. Berrikuntza publikoa epe hala nola egokitzapen hauen kudeaketan oinarritzen da.

Zure proiektuan, nola ahalbidetzen dituzue ikasteko eta hurrengo urratsak erabakitzeko esparruak?

EGITURA MALGUEN FINKAPENA

Badira hainbat inpaktu eta egonkortze estrategia zeinek arauetan eta legeetan eragina izateko behar den energia guztia ez duten eskatzen, esanguratsua nahiz eraginkorrak izateari utzi gabe. Kolaborazio, bistaratze eta irekitasun praktika hauek aukerak zabaltzen dituzte beste zenbait kudeaketa eredu hala nola ekipamendu publikoen erabilera barne hartze aldera.

Zure proiektuan, nolako da zuen eragina kolaborazioa bultzatzen duten esparruetan?

HARREMAN-SAREA ZABALTZEA

Partaidetza-esparruak lagungarri dira erronka partekatuen aldeko irtenbide kolektiboak eraikitzeke, eta aldi berean, harremanak sendotzen dituzte komunitatearen baitan, baita honen eta Administrazio Publikoaren artekoak ere. Elkarlana, zaintza eta entrenamendua behar dituen gihar bat da.

Zure proiektuan, zeintzuk dira administrazioa eta herritarren artean harremanak sendotze aldera garatzen ari zireten ekintzak?

PROZEDURA ETA INPAKTUA KONEKTATZEA

Administrazioko eta gizarte erakundeetako arlo askoren lanerako helburuak, horien arteko koherentzia nahiz lotura eraginkorra baliatuz lortzen dira. Kolaborazio publiko-sozialaren bitartez bilatzen ditugun prozedura eta inpaktuen artean sarritan topatzen dugun arrakala gaitzitu behar dugu.

Zure proiektuan, beharrezko egiturak eta prozedurak izapidetzeaz arduratzen diren pertsonak zenbateraino ulertzen dituzte proiektuaren inpaktuak eta haren berezitasuna?

PERTSONEN GARRANTZIA LEHENESTEA

Sarritan, urruntasunak nolabaiteko babes sentiarazten digu. Errazagoa gertatzen zaigu funtzionatzen ez duten ardura ezberdintzat jotzen dugu hari egozte. Hala ere, zubiak eraikitzen jarraitu behar dugu arautegia eta errealitatea artean, eta hori modu estrategiko batean egin behar dugu, barrerak altxatzea eta posizioak zakartzea ekidinez.

Zure proiektuan, nola erantzen dituzue beste esparru batzuetako pertsonak?

PARTAIDETZA ESKUBIDE GISA SUSTATZEA

Gizarte erronkei aurre egiterakoan kolaboratzearen konplexutasunaz hala nola beharrez jabetzen ari garen une batean, kolaborazio moduak ezartzeko bidean dira eta batzuetan bere helburuak gardanak ez izan arren, bestetan, partaidetzaren potentziala mugatu ohi dute.

Zure proiektuan, proposatzen ari zireten partaidetzaren mailarekiko gardentasunik ba al dago eta zeintzuk dira bere mugak?

TIP-AK

Ezaugarri hau hobeto ulertzen eta garatzen lagundu ahal duten erreferentziak eta/edo baliabideak.

A CORUÑAKO OZAKO FAROA, ERAKUNDETZE MALGUAREN ADIBIDEA

Erakundetarako eginiko emakida nominalekiko kontrajarrita, A Coruñaeko Ozako Faroa leheneratzeak herritar ororentzat esparru bat zabaltzea suposatzen duen. Erakundetze malguaren hala nola tramite konplexurik gabeko kasu bat da: giltzen entrega, egutegi partekatuarekin eginiko antolaketa eta Internetarako doako sarbidea eta garrantzitsuenak, ko-erantzukizun eta konfiantzazko ariketa bat, bai Administrazio Publikoaren aldetik eta bai herritarren aldetik. Kolaborazio eta irekitasun ariketa honek, beste kudeaketa eredu batzuetarako esperientziari eta ekipamendu publikoen erabilera ematen diete bidea.

www.coruna.gal/participacion/gl/teus-espazos-abertos/teu-faro-de-oza



ERREFERENTZIEKIN BILTEGIA

Sarritan, orientatzen gaituzten adibideekin kontatzeko eta erreferentzia eredu gisa balio diguten edo besterik gabe, inspirazio-iturri diren adibideekin kontatzeko beharra izaten dugu. Bherrian, zeregin hau geurea baliatzen barneratu dugu. 2018. urtean garatu genuen Bherri-lab laborategia abiapuntu bezala onartuz, ekintza bakoitzarekin elikatzen jarraitzen dugun erreferentzien datu-base bat eraikitzen eta aberasten aritu izan gara.

www.bherria.eus/eu/bherriaren-liburutegi-birtuala

TXOSTEN JURIDIKO BATEN HIZKUNTZA ALDATZEA

Bherriako Prestakuntzaren saioan, A Coruñaeko Udaleko Partaidetza hala nola Berrikuntza Demokratikoaren zinegotzi ohi Claudia Delsok txostenetan eta erregulaziotan erabilitako hizkuntzaren garrantzia nabarmendu zuen.

Hizkuntza komun baten ezarpenak, termino malguagoak eta irekiagoak bitarteko izanik, alderdi interesatuak prozesuarekin gehiago identifikatzea ahalbidetzen du. Eta segidan, A Coruñaen Metrosideroko Ontzien emakida erraztu zuen txosten juridikoari dagokion taula bat partekatzen dugu.

www.plaestel.org/es/naves-do-metrosidero-3

| MODELO TRADICIONAL | NOVO MODELO |
|---|--|
| Cesión de espacio a entidades asociativas | Cesión de xestión á veciñanza organizada |
| Título administrativo unilaterial | Documento pactado |
| Actividades de inspección municipais | Rendición de contas dos veciños |
| Responsabilidade administrativa | Co-responsabilidade |
| Legalidade | Legalidade + lexitimidade social |

ERAKUNDE ARTEKO ITUN BEREZIAK

Coruñaeko Udaleko Metrosideroko Ontzien kasua, erakunde arteko kolaborazio berezi bat eskatzen duen ezohiko adibidea da: maila juridikoan Lanbide Heziketako Institutu batekin eginiko kolaborazio apal bat izan zen, ikasleek gazteentzako udal ekipamendua sortzeko aukera izan zezaten.

Kasu honetan, administrazioa aukera berrien emale bezala jarduten da herritarrei begira, politika publiko berritzaile baten inguruan, zein azpiegitura sozial berri batean oinarritzen den erabilera plan adostu bat eta kudeaketa eredu berritzaile bat direla medio.

www.youtube.com/watch?v=hHATJmfkBqo

TRIBUNA PUBLIKOA

Tribuna Publikoa, kulturak partaidetza hala nola erakundetzea nola sustatu ahal dituen irudiztatzen duen adibide bat da. 7 hilabetetan zehar, egitura bat ezarri zen A Coruñaeko eremu publikoan, zeinek hiriko portu-orubeen etorkizunarekin lotutako harreman- eta eztabaida- dispositibo sorta bat artikulatu zituen.

Hiri-testuinguruan eginiko kolaborazio ariketa honetan, kontrol eta instrumentalizazio ohiko protokoloak gobernantza partekatuarekin eta izpiritu kritiko independente batekin ordeztu ziren, zeinek tartean sartu zituen jardueretan parte hartu zuen oro eta herritarrak orokorren.

www.campoderelampagos.org/critica-y-reviews/7/12/2019

BONUS TRACK: INERTZIAK ALDATZEKO MANTRA

Udalerrietan, ez dago formula magikorik aplikatzeko, baina bai inspirazio gisa baliagarriak gerta dakizkizun horizonte ezberdinak. Claudia Delsok, sintesi gisa, inertzia instituzionalak aldatzeko beste estrategia batzuk partekatu zituen:

- Erroreari esparru galdetzaileetatik aurre egitea.
- Elkarrekin ikaskuntza eta entzute aktiboa sustatzea.
- Legezketasuna eta legitimotasuna arteko oreka bat lortzea.
- Proiektuetan hizkuntza doitzeko, hiztegiak hedatzea eta hitzen esanahia birstortzea.
- Egitura juridikoen plastikotasuna lantzea.
- Zuzenbidearen printzipioak eta arauaren xedeari eta helburuari apelatzea.
- Aldebakarreko legeetatik aldeko konpromisoetara eboluzionatzea.
- Ikuskapen ikuspegi batetik kontuak ematen dituen kultura batera pasatzea.